

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gure produktuak eskaintzen duen zerbitzua, gaur egun oso kezagarria den arazo bati ematen dio konponbide posible bat. Zein da arazo hori? Sexu indarkeria. Emakume askok sufritzen dituzte eraso sexistak beren bikotearengandik, ez egiten dutenagatik, direnagatik eta irudikatzen dutenagatik baizik. Hau da, betidanik emakumeak duen feminitatearengatik genero ahulena kontsideratu da eta horregatik gizonek horretaz baliatzen dira berain nahiak asetzeko. Gainera, nabarmendu beharra dago, eraso sexistak ez direla eraso fisikoak soilik, baita bikote batean ematen den kontrola edo ahozko erasoak ere. Beraz, uste dugu argi dagoela egoera honen aurrean zerbaitegin beharra dagoela.

Zentzu batean lotsagarria iruditzen zaigu gaur egun emakumearen segurtasunagatik borrokatu behar izateak eta tradizioagatik generoen arteko desberdintasunak egoteak eta bata bestea baino indartsuagoa izatea. Agerian dago zein da gure taldeak asetzen duen baharra beraz, emakumearen segurtasuna.

Gure produktua antzekoak diren beste batzuegatik bereizten duena, lehen aipatutako arazoaren aurrean dugun gure jarrera izango da. Konfidentzialtasuna izango da guretzako faktore ezinbesteko bat ideia hau aurrera eramateko. Ezagutzen ditugun kasu gehienetan, eraso sexista oso larri bat gertatu aurretik, bikoteak jarrera matxistak aurkezten ditu. Bikotearenganako kontrola kasu askotan ematen da eta horregatik bereziki gure eraso sexisten aurkako chip-a diskretua izango da. Pertsona bakoitzaren egoera eta beharretara ahalik eta hoberen moldatzen den chip-aren tamaina erabakiko dugu eta bere diseinuarengatik emakumean seguruen kontsideratzen duen tokian izkutatu du chip-a. Handiago bat eskatu dezake boltsoan saltzeko, txikiago bat pultsera batean ipintzeko edota bien posibilitate hauen arteko tamaina ertain bat poltsikoan edo galtzetara lotzeko.

Beraz, uste dugu gure ideiak emakume askori beharrezkoa duten laguntza bat eskaini diezaikegula. Garrantzitsuena, segurtasuna, ezinbestekoa dena pertsona guztientzako. Hortaz gain, gure bezeroarekiko gertutasuna kontuan hartuko dugu eta chip-a lortzeko gure bulegoa Igarako lokal batean kokatuko dugunez tratua oso pertsonala izango da eta baita diskretua ere.